




EAEko esportazioak %22,9 handitu ziren

Ondasunen esportazioa atzerrira

Urte bakoitzeko uztaila. Milioiak




Iturria: Eustat.

Uztailean, atzerrira bidalitako ondasunen esportazioen balioa %22,9 handitu zen. Gehikuntza horren zati handi bat produktu energetikoen salmentari zor zaio, azken horren zenbaitakoa hirukoiztu egin baitzen 2021arekin alderatuta (%215,9), baina gainerako produktuek ere bilakaera positiboa izan zuten aldi horretan (%12,3).

Etxebizitzen salmenta %7,3 hazi zen uztailean

EAEEn saldutako etxebizitzak

Urte bakoitzeko urtarriletik uztailean bitartean




Iturria: INE

INEk argitaratutako informazioaren arabera, uztailean etxebizitzen salerosketa %7,3 igo zen Euskadin aurreko urtearen aldean. Horren ondorioz, aurtengo lehen zazpi hilabeteetan 14.617 etxebizitza saldu dira, 2007tik erregistratu den kopururik handiena baita.



Zerbitzuetako negozio zifrak errekorra markatu du

Zerbitzuetako negozio zifra
Urte bakoitzeko uztaila. Indizea




Iturria: INE.

Uztailean, zerbitzuetako negozio zifra %13,2 hazi zen aurreko urtearen aldean. Adierazi behar da indize horrek lortutako balioa (147,5) uztail batean inoiz erregistratu den handiena izan zela. Beste aldetik, enplegua %1,2 hazi zen sektorean, aurreko hila beteetan baino gutxiago.

Hoteletan igarotako gaualdien kopurua %7,5 igo zen

Hoteletan igarotako gaualdiak
Urte bakoitzeko abuztua. Mila



Iturria: Eustat.

Aurtengo abuztuan, hotel establezimenduetan igarotako gaualdien kopurua %7,5 hazi zen 2021eko hil beraren aldean. Guztira, 839.000 gaualdi baino gehiago erregistratu ziren pasa den hilean, abuztu batean inoiz lortu den kopururik handiena.